

KULTUR IKASTAROAK

POLTSA OSATZEA
(2026-2027)

Kultur Ikastaroetako
proiektu-poltsa bat
osatzeko
deialdia

2026

CURSOS CULTURALES

FORMACIÓN DE BOLSA
(2026-2027)

Convocatoria para
la formación de una bolsa de
proyectos para la realización
de Cursos Culturales

2026



1.- ARRAZOIBIDEAK

Kultura eta Hezkuntza Saila, Kultura Zerbitzuko Zonetako Kultur Jardueren Atalaren bitartez, zenbait programa bultzatzen ari da gizarte-etxeetan, kulturaren presentzia etengabea izan dadin Vitoria-Gasteizko herritarren eguneroko bizitzan, eta kultura-erabilerak kultur ohitura aktibo bilakatu daitezen. Hori guztia zabalkundearen, prestakuntzaren, sorkuntzaren eta kultura ludikoaren alorretan.

Aipatutako kultura prestakuntzaren alorrean, KULTUR IKASTAROAK izeneko programa antolatzen du, besteak beste.

Publizitatearen eta lehia askearen printzipioak bermatzearen, bai eta berdintasunarena eta diskriminazio ezarena ere, saileko zerbitzu teknikoek deialdi publikoa antolatu dute Kultur Ikastaroak gauzatzeko proiektuen poltsa bat eratzeko.

2.- XEDEA

Kultur Ikastaroak gauzatzeko proiektuen poltsa bat eratzeko da deialdiaren xedea.

Entitatea, deialdi honetan, enpresa, elkarte zein pertsona fisikoa izan daiteke, Administrazioarekin kontratuak egiteko gaitasuna baldin badu eta gaitasun hori egiaztatzeko agiriak aurkeztea baldin badu, beti ere Arlo Publikoko Kontratazioari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezarritakoaren ildotik.

3.- POLTSAREN IRAUPENA

Proiektuen poltsa hau 2026ko urritik 2027ko uztailera bitarteko denboraldian izango da indarrean.

4.- POLTSAREN HELBURUAK. HARTZAILEAK

Proiektuen poltsaren helburu nagusia hainbat ikastaro taxutu eta gauzatzea da; horien bitartez, deialdiaren I. eranskinean zehaztutako hartzaileei kulturaren hainbat arlotako ezagutzak era didaktiko eta atseginean eskaini nahi zaizkie, beharrezko zorrotasun zientifikoa alde batera utzi gabe.

5.- PROGRAMAK ETA EDUKIAK

Oinarrien I. eranskinean zehaztutakoaren arabera taxutuko dira.

1.- FUNDAMENTACIÓN

El Departamento de Cultura y Educación, a través de la Unidad de Actividades Culturales en Zonas, del Servicio de Cultura, desarrolla programas en los centros cívicos que pretenden que la cultura sea una constante en la vida diaria de la ciudadanía de Vitoria-Gasteiz y los usos culturales se conviertan en hábitos activos culturales, en los campos de la difusión, formación, creación y cultura lúdica.

En la línea mencionada de la formación cultural, cuenta entre otros programas con los denominados CURSOS CULTURALES.

Para garantizar los principios de publicidad y libre competencia, así como el de igualdad y no discriminación, por los servicios técnicos del Departamento se realiza convocatoria pública para la formación de una Bolsa de Proyectos para la realización de Cursos Culturales.

2.- OBJETO

Es objeto de la presente convocatoria la creación de una Bolsa de Proyectos para la realización de Cursos Culturales.

A los efectos de esta convocatoria, se entiende por Entidad cualquier empresa, asociación o persona física siempre que tengan capacidad de obrar, la cual deberá poder acreditarse conforme a lo establecido en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre de Contratos del Sector Público.

3.- DURACIÓN DE LA BOLSA

Esta Bolsa de Proyectos estará vigente para la temporada de octubre de 2026 a julio de 2027.

4.- OBJETIVOS DE LA BOLSA. PERSONAS DESTINATARIAS

La Bolsa de Proyectos se realiza con la finalidad de diseñar y llevar a cabo la realización de diferentes cursos que permitan poner a disposición de las personas destinatarias señaladas en el Anexo I de estas Bases conocimientos propios de diferentes campos de la cultura de una forma didáctica y amena, sin excluir el rigor científico.

5.- PROGRAMAS Y CONTENIDOS

Conforme al **Anexo I** de estas Bases.



6.- AURREKONTUA

Vitoria-Gasteizko Udalak prezio finko bat ordainduko du, ondoren zehazten diren prezioen arabera, Prezioan honakoak sartzen dira: jarduera prestatu eta gauzatzea, dosierra egitea, koordinazio, jarraipen eta ebaluazio bilerak, eta ikastaroa ematearekin lotutako gainerako zereginak. BEZik gabeko prezioak dira.

- Ikastaro berrietako ordu teorikoak:
82,77 euro orduko.
- Ikastaroak errepikatzea:
Aurretik emandako ikastaro bat errepikatzen bada, ordu teorikoen prezioa %20 murriztuko da.
- Ekintza osagarriak:
Txangoak, irteerak edo bestelako ekintza osagarriak egin nahi bada, eskola-orduetatik kanpo, 28,19 € orduko (gehenez 10 ordu ikastaroko) ordainduko dira.
- Ikastaroa bertan behera geratzen bada:
Adjudikatu diren proiektu berrien kasuan, eta ikastaroa prestatzeak aurretiko lana eskatzen duela kontuan hartuz, adjudikaziodunari ordu teorikoetarako aurrekontuaren %10 ordainduko litzaioke antolakuntzak ikastaroa bertan behera utzi behar balu inskripzio gutxi izan delako. Horretarako ezinbesteko baldintza izango da dosierra epe barruan entregatu izana, hots, ikastaroa hasi baino 10 egun lehenago gutxienez.

7.- PROIEKTUAK AURKEZTEA

Proiektuak aurkeztu nahi duten erakundeek 8. oinarrian zehaztutako epean aurkeztu beharko dituzte.

Proiekturik aurkeztuz gero erakunde eskatzaileak oinarri hauetan ezarritako arau eta betekizun guztiak berariaz eta baldintzarik gabe onartzen dituela joko da.

Proiektuen edukiak oinarri hauetako I. eranskinean zehazten diren alderdiak izan beharko ditu kontuan, eta, halaber, "Kultur ikastaro baten eskaintza aurkeztea" izeneko orria erantsi beharko da, behin bete eta gero.

Deialdiaren helburuarekin lotutako proiektuak

6.- PRESUPUESTO

Se establecen los siguientes precios fijos a abonar por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Incluyen la preparación, desarrollo de la actividad, elaboración de dossier, reuniones de coordinación, seguimiento y evaluación, así como otras actuaciones que conlleve el impartir el curso. No está incluido el IVA.

- Por horas teóricas de cursos nuevos:
82,77 euros/hora.
- Repetición de cursos:
En el caso de volver a impartir un curso ya impartido con anterioridad, el precio para las horas teóricas se reduce en un 20%.
- Actividades complementarias:
Si se contemplaran excursiones, salidas o, en general, actividades complementarias fuera del horario lectivo, se atenderá al número de horas (hasta un máximo de 10 por curso) al precio de 28,19 €/hora.
- Suspensión del curso:
En proyectos nuevos ya adjudicados, y dado que la preparación del curso exige un trabajo previo, si la organización tuviese que suspender el curso por falta de inscripciones, abonaría al adjudicatario el 10% del presupuesto total de horas teóricas. Para ello será requisito indispensable haber entregado el dossier correspondiente al curso en plazo, es decir, con una antelación mínima de 10 días sobre la fecha de comienzo.

7.- PRESENTACIÓN DE PROYECTOS

Las entidades que deseen presentar proyectos deberán hacerlo en el plazo señalado en la Base 8.

La presentación de proyectos presupone la aceptación expresa e incondicional por las entidades solicitantes de la totalidad de las exigencias y normas establecidas para este programa.

El contenido de los proyectos deberá realizarse conforme a los puntos establecidos en el Anexo I de estas Bases, y se presentará asimismo el documento cumplimentado de "Presentación de propuesta de Curso Cultural".

Solo se tendrán en cuenta proyectos que guar-



besterik ez da kontuan hartuko.

8.- AGIRIAK AURKEZTEKO EPEA, MODUA ETA LEKUA

2026ko otsailaren 5ean hasi eta 27an amaituko da proiektuak aurkezteko epea, bi egun horiek barne.

Dokumentazioa egoitza elektronikoaren bidez zein herritarrei laguntzeko bulegoetan aurkeztu ahalko da, eta, azken kasu horretan, euskarri digitalean zein paperean.

• Egoitza elektronikoaren bidez:

Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahal izango da, erre-gistro elektronikoaren bidez. Horretarako identifikazio-txartel digitala erabili beharko da, honako helbidean ezarritakoari jarraituz: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>

• Herritarrei laguntzeko bulegoen bidez:

○ Dokumentazioa euskarri digitalean:

Euskarri digitalean aurkezten den dokumentazioari **dagokion erantzukizunpeko aitortpena** erantsi beharko zaio, Udalaren webgunetik deskarga daitekeen inprimakia baliatuz. Inprimaki horrek behar bezala izenpetuta egon beharko du.

Euskarri horrek izan beharko ditu lehen mailan (euskarriaren erroa) beharrezko artxi-boak, **PDF formatuan** (horien artean, "Kultur ikastaro baten eskaintza aurkeztea" izeneko orria, sinatua).

○ Dokumentazioa paperean aurkeztea:

Paperean aurkezten den dokumentazioak DIN A4 tamaina eduki beharko du, eta, herritarrei laguntzeko bulegoko digitalizatze-lana errazte aldera, orri solteetan **aurkeztu beharko da**, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistemarik erabili gabe.

9.- POLTSA OSATZEA

Deialdi honetan ezarritakoa betetzen duten proiektuekin Kultur Ikastaroetako Proiektuen Poltza bat osatuko da. Garatzen den programazioaren arabera hautaketa egingo da poltza osatzen duten

den relación con el objeto de la convocatoria.

8.- PLAZO, FORMA Y LUGAR DE PRESENTACIÓN

El plazo de presentación de los proyectos comprende **del día 5 al 27 de febrero de 2026**, ambos inclusive.

Se podrá entregar la documentación, bien a través de la sede electrónica, bien en las Oficinas de Atención Ciudadana, y en este último caso en soporte digital o en soporte papel.

• A través de la sede electrónica:

Se podrán registrar la solicitud y resto de documentación online a través del servicio de registro electrónico. Para ello es necesario utilizar una tarjeta de identificación digital según se establece en la dirección <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>

• En las Oficinas de Atención Ciudadana:

○ Presentación en soporte digital:

Toda la documentación contenida en soporte digital deberá ir acompañada del impreso de **declaración responsable de entrega de documentación en formato digital**, que se puede descargar de la página web municipal. Dicha solicitud deberá estar debidamente firmada.

Dicho soporte deberá contener en un primer nivel (raíz del soporte) los archivos necesarios en **formato PDF** (entre ellos, la "presentación de propuesta de Curso Cultural" rellena y firmada).

○ Presentación en soporte papel:

La documentación que se presente en formato papel deberá constar en tamaño DIN A4 y, para facilitar su digitalización en el puesto de atención presencial, **se exige** su presentación en hojas sueltas, sin grapas, clips ni cualquier otro sistema de agrupación.

9.- FORMACIÓN DE LA BOLSA

Con los proyectos presentados que cumplan los requisitos establecidos en la presente convocatoria se constituirá una Bolsa de Proyectos de Cursos Culturales. En función de la programación



proiektuen artean.

10.- PROIEKTUAK KONTRATATZEA ETA ORDAINTZEKO ERA

Ikastaroak emateko hautatzen diren entitateek kontratuak egiteko gaitasuna izan beharko dute, Arlo Publikoko Kontratazioaren alorrean indarrean dagoen legediak ezarritakoaren ildotik. Betebehar fiskalak eta sozialak egunean izan beharko dituzte.

Hitzarmenak legeak ezarritakoari jarraiki egingo dira.

Ordainketa indarrean dagoen araudiaren araberrako faktura aurkeztu eta arduradun teknikoak oniritzia eman ondoren egingo da.

Ikastaroak esleitu aurretik, entitateek idatziz azaldu beharko dute BEZ zergarekiko salbuetsita dauden ala ez, eta, hala badagokio, administrazio eskudunak luzatutako ziurtagiria, non zerga-salbuespen hori aitortzen den, edo bestela azaldu beharko dute zein arauen arabera dauden salbuetsita.

11.- POLTSAN SARTZEN DIREN ERAKUNDEEN BETEBEHARRAK

Proiektua egokitu behar izanez gero, teknikari arduradunekin adostutakoari jarraituko zaio.

Aurreikusituzko diren alderdietan, Arlo Publikoko Kontratazioaren alorrean indarrean dagoen legediak ezarritakoari jarraituko zaio.

12.- ZIGORRAK

Deialdi honetan zehazten diren betebeharrak edota entitateak proiektuan zehazten diren proposamenak ez badira betetzen, honako zigor hauek ezarriko zaizkio entitate esleipendunari, ohartarazi eta, hala badagokio, audientzia eman ondoren:

- Irakasleak justifikaziorik gabe ikastarora ez joategatik: saio bakoitzeko 350 euro deskontatuko dira.
- Eman ez diren orduak ez errepereratzeagatik: saio bakoitzeko 350 euro deskontatuko dira.
- Irakasleak ikastaroa emateko behar duen prestakuntza maila (edukien zein hizkuntzaren alorrean) ez izateagatik: entitateak irakaslea ordezkatu beharko du eta or-

que se desarrolle, se procederá a la selección de sus integrantes.

10.- CONTRATACIÓN DE PROYECTOS Y FORMA DE PAGO

Las entidades seleccionadas podrán ser contratadas siempre que tengan capacidad de obrar conforme a lo establecido en la legislación de Contratos del Sector Público vigente. Deberán estar al corriente en sus obligaciones fiscales y sociales.

La contratación se realizará por el procedimiento legalmente establecido.

El pago se hará previa presentación de factura, cumplimentada conforme a la legislación vigente, con el visto bueno técnico correspondiente.

Con carácter previo a la adjudicación de los cursos, las entidades deberán presentar por escrito indicación expresa de si están o no exentas de IVA y, en su caso, certificado de reconocimiento de la exención, expedido por la administración competente, o precepto normativo según el cual procede la exención.

11.- OBLIGACIONES DE LAS ENTIDADES SELECCIONADAS EN LA BOLSA

En caso de que haya que adecuar el proyecto, ello se realizará conforme a lo acordado con las y los técnicos responsables.

En todo lo no previsto con anterioridad se estará a lo dispuesto en la legislación de contratos del sector público vigente.

12.- PENALIDADES

En el caso de que se incumplan las obligaciones recogidas en esta convocatoria y/o cualquiera de las propuestas por la entidad en el proyecto presentado, se impondrán previa advertencia y, en su caso, audiencia a la entidad adjudicataria, las siguientes penalidades:

- Por inasistencia injustificada del profesor/a al curso: se descontarán 350 euros/sesión.
- Por la no recuperación de horas no impartidas: se descontarán 350 euros/sesión.
- Por falta de nivel formativo y profesional del profesor/a para impartir el curso (tanto respecto



dura arte eman diren saio bakoitzeko 350 euro deskontatuko dira.

- Irakaslearen puntualtasun ezagatik, behin eta berriro gertatzen bada: 350 euro deskontatuko dira.
- Asistentziaren kontrolari eta balorazio-orriei dagozkien eginkizunak ez betetzeagatik: 350 euro deskontatuko dira.
- Ikastaroari dagokion hizkuntza eskolak emateko eta ikasleekin jarduteko hizkuntza bakar gisa ez erabiltzeagatik: 350 euro deskontatuko dira.
- Ikastaroan gerta daitezkeen gorabeheren, aldaketen eta beste edonolako gertakarien berri ez emateagatik: 350 euro deskontatuko dira.
- Entitate esleipendunak proiektuan adierazitako proposamenak ez betetzeagatik: proposamen bakoitzeko 350 euro deskontatuko dira.

a los contenidos como respecto al idioma): la entidad deberá proceder a su sustitución y se descontarán 350 euros por cada sesión que ya se hubiera impartido.

- Por impuntualidad reiterada del profesor/a: se descontarán 350 euros.
- Por no realizar las labores requeridas en cuanto a control de asistencia y cuestionarios de valoración: se descontarán 350 euros.
- Por no utilizar el idioma en que se ha programado el curso como lengua exclusiva de enseñanza y de relación con los/as alumnos/as: se descontarán 350 euros.
- Por no informar de incidencias, cambios y cualesquiera otras circunstancias no previstas que se sucedan durante el desarrollo del curso: se descontarán 350 euros.
- Por incumplimiento de las propuestas planteadas por la entidad adjudicataria en su proyecto: se descontarán 350 euros por cada propuesta.



I. ERANSKINA

KULTUR IKASTAROAK

HELBURUAK

- Kultura herritarrei hurbiltzea.
- Herritarrengan ohitura kulturalak sortzea, aldaketa sozial etengabeak bultzatzearen.
- Kultura herritar talde guztien eskura jartzea, haien behar eta interesak aintzat hartuz.
- Ezagutzak zabalkunde maila batean hartzeko aukera ematea, baina aldi berean beharrezko zorrotasun zientifikoa alde batera utzi gabe.
- Herritarrekin gure garaiko kultura osatzen duten gaiak eta auziak partekatzea.

DESKRIBAPENA

KULTURA IKASTAROEN bitartez herritarrei kulturaren hainbat arlotako ezagutzak era didaktiko eta atseginean eskaini nahi zaizkie. Horrek ez du esan nahi zorrotasun zientifikoa alde batera utzi behar denik, gaiak adituek eman beharko dituztelako.

Ikastaroak kultur ikuspuntu batetik jorratu daitezkeen edozein diziplinari buruzkoak izan daitezke. Adibide moduan, alor honetakoak izan daitezke: artea, historia, zientzia, musika, literatura, giza eta gizarte zientziak, eta abar. Ikastaroek ikuspegi orokor bat eskaini ahal dute, edo gai jakin bat sakonago landu.

Ez dira baloratuko Udaleko beste sail edo zerbitzu batzuen eskumenekotzat jo daitezkeen gaiak. Bai, ordea, kulturaren ikuspuntutik zeharkako gaiak kontuan hartzen dituzten proiektuak, hala nola berdintasuna, gazteria, inmigrazioa edo ingurunea, beti ere ikuspegi horiek kultur gai bati atxikitzen zaizkiola. Halaber, ez dira inola ere baloratuko jarduera artistikoetan hasteko ikastaro praktikoak, horiek beste deialdi baten barnean kokatzen baitira.

Dena den, ikastaro guztiak ere espezialitate jakin bati buruzko **ikastaro teorikoak** dira. Ikastaro horiek beste jarduera batzuen bidez (txangoak, bisitak, entzunaldiak, saio praktikoak...) osatu ahal izango dira. Ekintza osagarri horiek aukerakoak izango dira ikasleentzat, eta gasturen bat badaukarte (sarrerak ordaintzea edo autobusa kontrata-

ANEXO I

CURSOS CULTURALES

OBJETIVOS

- Acercar la cultura a la ciudadanía.
- Crear hábitos culturales en la ciudadanía a fin de promover cambios sociales permanentes.
- Poner la cultura al alcance de todos los sectores de población, en función de sus necesidades e intereses.
- Posibilitar la transmisión de conocimientos en un tono divulgativo, sin excluir por ello el necesario rigor científico.
- Compartir con la ciudadanía temas y cuestiones que configuran la cultura de nuestro tiempo.

DESCRIPCIÓN

Con los CURSOS CULTURALES se pretende poner a disposición de la ciudadanía los conocimientos propios de diferentes campos de la cultura de una forma didáctica y amena. Ello no excluye el rigor científico, ya que los temas son tratados por especialistas.

Los temas pueden versar sobre cualquier disciplina susceptible de ser considerada desde una vertiente cultural. A manera de ejemplo, podemos citar los campos del arte, historia, ciencia, música, literatura, ciencias humanas y sociales, etcétera. Los cursos pueden ofrecer una visión de conjunto o profundizar en un tema concreto.

No se valorarán temas que sean competencia de otros departamentos o servicios municipales, lo que no impide que puedan incluirse y valorarse perspectivas transversales como la igualdad de género, juventud, inmigración o medio ambiente, en la medida en que aporten nuevas perspectivas a temas culturales. Tampoco se valorarán proyectos de cursos de iniciación a la práctica artística, que tienen su propia convocatoria.

Son **cursos teóricos** sobre una determinada especialidad, y pueden completarse con algunas actividades complementarias como excursiones, visitas, audiciones, sesiones prácticas, etc. Estas actividades complementarias son optativas para las y los participantes, y si requiriesen un desembolso económico (por ejemplo, precio de una



tzea, adibidez) ikasleek berek ordaindu beharko dute, ez baita matrikularen barruan sartuko.

HARTZAILEAK

Helduak, 16 urtetik aurrera.

Edonork hartu ahalko du parte, horretarako pres-takuntza berezirik edo inolako titulaziorik behar izan gabe. Hori dela eta, ikastaroak modu dibulga-tzailean egituratu behar dira, gauza berriak ikas-teko gogoia izatea nahikoa izango baita parte hartzeko.

Ez dira balioetsiko herritar talde jakinei (emaku-meak, adinekoak, gazteak, etab.) zuzendutako ikastaroak.

Ikastaro bakoitzaren ikasleen kopurua 15 eta 50en artekoa izango da, ikastaroaren ezaugarrien eta espazioaren arabera.

DENBORA BANAKETA

Iraupena eta aldizkakotasuna ikastaro bakoitzaren edukiari eta ezaugarriei egokituko zaizkie, eta, hor har, parametro hauek ezartzen dira:

- Saio kopurua: 4 eta 15 artean. Izan litezkeen ekintza osagarriak zenbatu gabe.
- Saio bakoitzaren iraupena: 90 minutu.
- Aldizkakotasuna: saio bat astean.

Hala izanik, ikastaroen hilabete eta bost hilabete arteko iraupena izan dezakete, ikastaro bakoitze-rako erabakitzen diren data zehatzetan.

Aipatutako parametro orokor horiek aldatu ahal izango dira (astean bi saio, adibidez, edo bi orduko saioak), ikastaroaren edukiak eta ezaugarriak hala eskatzen badute.

Ikastaroak goizez edo arratsaldean izan daitezke.

HIZKUNTZA

Kultur Ikastaroen programazioan gaztelaniazko zein euskarazko ikastaroak sartzen dira, eta proiektuek zehaztu behar dute hizkuntza batean edo bestean, edo bietan, eman daitezkeen.

Euskara sustatzeko Kultura Zerbitzuak daukan konpromisoak bere isla izan behar du Kultur

entrada o contratación de un autobús), el gasto correrá a cargo del alumnado interesado, cantidad no incluida en la matrícula.

PERSONAS DESTINATARIAS

Personas adultas, a partir de 16 años.

Cualquier persona puede matricularse, no precisando para ello de preparación especial o titulación de ningún tipo. Por ello, los cursos deben estructurarse de una manera divulgativa, en la que para tener acceso basta con el interés de la persona por adquirir nuevos conocimientos.

No se valorarán proyectos dirigidos a sectores concretos de población (mujeres, tercera edad, jóvenes, etc.).

Cada curso contará con entre 15 y 50 plazas, dependiendo de sus características y del espacio donde se desarrolle.

TEMPORALIZACIÓN

La duración y periodicidad se adaptará al contenido y características de cada curso, y como norma general se establecen los siguientes parámetros:

- Número de sesiones: entre 4 y 15. Sin contar las posibles actividades complementarias.
- Duración de cada sesión: 90 minutos.
- Periodicidad: una sesión por semana.

En consecuencia, los cursos durarán entre uno y cinco meses, en las fechas concretas que se acuerden para cada curso.

Estos parámetros generales podrán modificarse (dos sesiones por semana, por ejemplo, o sesiones de dos horas) si así lo requiriese el contenido y características del curso.

Los cursos se pueden desarrollar en horario de mañana o de tarde.

IDIOMA

La programación de Cursos Culturales incluye cursos tanto en castellano como en euskera, y los proyectos deben hacer constar si se pueden impartir en uno u otro idioma, o en ambos.

El compromiso del Servicio de Cultura con el



Ikastaroen programazioan, eta, alde horretatik, interes bereziarekin baloratuko dira euskaraz emateko iristen diren proposamenak.

Edonola ere, euskarazko ikastaroak ematen dituzten pertsonak hizkuntza menderatzeko behar besteko ezagutza izan behar dute, ikastaroek behar duten kalitatea bermatuta gera dadin.

GIZA BALIABIDEAK

Pertsona bat baino gehiago aritzen badira irakasle lanetan, horietako batek koordinatzaile-arduradunaren egitekoak hartuko ditu bere gain.

Hauek dira koordinazio arduradunaren eginkizunak:

- Zonetako Kultura Jardueren Atalarekiko harremanetarako erreferentziatzeko pertsona izatea.
- Saioak, irakasleak zein material edo baliabide eskaerak koordinatzea, eta, oro har, ikastaroaren zenbait saioekin edo ikastaro osoarekin zerikusi duten alderdi guztiak.
- Ikastaroa ezarritako eduki eta epeetara egokitzuz emango dela bermatzea.
- Antolatzaileen irizpideak uneoro betetzea.
- Ikastaroaz arduratzen den teknikariari ikastaroan zehar gertatzen den edozein gorabeheraren berri ematea.
- Zonetako Kultura Jardueren Atalari ikastaroari buruzko dossier bat aurkeztea, gutxienez ikastaroa hasi baino 10 egun lehenago, ikasleen artean banatu ahal izateko. Dossier formatu digitalean aurkeztuko da, eta saio bakoitzeko 3 eta 6 orri bitartekoa izango da. Horren ordezkari beste mota bateko dossiera aurkeztu nahi bada, Atalak aurretik arrazoiak aztertu eta oniritzia eman beharko du nahitaez.
- Ikastaroetan parte hartzen duten ikasleen datu pertsonalei dagokienez, entitate esleipendunak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Legeak eta gainerako lege aplikagarriak bete beharko ditu.

Hauek dira irakaslearen edo irakasleen eginkizunak:

- Aldez aurretik teknikari arduradunarekin kontaktatzea ikasgela eta horren ezaugarriak ezagutzeko eta baliabide teknikoaren funtzionamendua egiaztatzeko.
- Esleitu zaion ikastaroko saioa edo saioak ematea.
- Ikastaroa egoki emateko behar diren azpiegitura

impulso del euskera debe tener su reflejo en la programación de Cursos Culturales, y en este sentido se valorarán con especial interés las propuestas que lleguen para impartirse en euskera.

En cualquier caso, las personas encargadas de impartir cursos en euskera deben poseer el suficiente conocimiento y dominio del idioma para garantizar la calidad que precisan los cursos.

RECURSOS HUMANOS

Si estuviera previsto que más de una persona imparta las clases, una de ellas deberá asumir las funciones de coordinadora-responsable.

Son funciones de la persona coordinadora-responsable:

- Ser la figura de referencia del curso de cara a las relaciones con la Unidad de Actividades Culturales en Zonas.
- Coordinar las sesiones, los contenidos, el profesorado, las peticiones de material o infraestructuras y, en general, todo aquello que afecte a varias sesiones o al curso en su totalidad.
- Garantizar la impartición del curso ajustándose a los contenidos y plazos establecidos.
- Seguir en todo momento los criterios de la organización.
- Informar al técnico/a responsable de todas las incidencias que sucedan durante su desarrollo.
- Facilitar a la Unidad de Actividades Culturales en Zonas un dossier con la documentación del curso, con una antelación mínima de 10 días sobre la fecha de inicio. Dicho dossier, que se distribuirá a las personas inscritas, se presentará en formato digital y deberá contar con entre 3 y 6 páginas por sesión. Cualquier variante que se quiera proponer a este dossier deberá razonarse y contar con el visto bueno previo de la Unidad.
- En todo lo referente a los datos de carácter personal de los y las participantes en los cursos, la entidad adjudicataria está obligada a cumplir la Ley de Protección de Datos de carácter personal 15/1999 y resto de legislación aplicable.

Son funciones del profesor/a o profesores/as:

- Contactar, previamente al inicio del curso, con el/la técnico/a responsable para conocer el aula y sus características y comprobar el funcionamiento de los medios técnicos.
- Impartir la sesión o sesiones asignadas.
- Controlar y cuidar el material y la infraestructura



eta materiala kontrolatu eta zaintzea.

- Ikasleen asistentzia-kontrola betetzea eta teknikari arduradunari ematea.
- Teknikari arduradunak ematen dizkion balorazio-galdetegiak ikasleei banatu eta beteta jasotzea.
- Taldeari aholkuak ematea eskura dituen baliabide eta bitartekoen inguruan, lantzen den gaian gehiago sakontzeko.
- Ikastaroan ekintza osagarriren bat egiten bada, jarduera horren ardura hartzea hasieratik amaitu arte.
- Saioren batean material espezifikorik beharrezkoa bada, erosketa egitea.
- Antolatzaileen jarraibideak uneoro betetzea.
- Irakasleak ezin badu saioren bat eman, beste batez ordeztzea, eta hori ezinezkoa izango bada, saio horretako denbora beste egun-ordu batzuetan erreuperatzea, taldearekin eta zonako kultur teknikariarekin ados jarrita.

Kultura Sailak ikastaro jakin bat kontratatzen duenean proposatu diren pertsonak eman eta koordinatu beharko dute. Ikastaroa hitzartu ondoren eta hura hasi bitartean –edo ikastaroan zehar– horren inguruko eragozpenik sortuko balitz, berehala jakinarazi beharko litzaioke Zonetako Kultura Jardueren Atalari.

BALIABIDE MATERIALAK

Kultura Ikastaroak gizarte etxeetan emango dira. Ikastaro bakoitzerako zentro, gela eta egun jakin batzuk izendatuko dira.

Saioaren beharren arabera, eta garaiz eskatzen bada, baliabide hauek eskuratu ahalko dira: arbela, bideoa, ordenagailu eramangarria eta proiektzio kanoia. Bestelako ikus-entzunezkoak erabiltzeko zentroaren ekipamendua eta lortzeko aukerak hartuko dira kontuan. Edonola ere, baliabide material horiek martxan jartzeko eta maneiatzeko ez da pertsonarik jarriko.

AURREKONTUA

Seigarren oinarrian zehaztutakoaren arabera.

PROIEKTUEN EDUKIA

Proiektuetan alderdi hauek zehaztuko dira:

ra necesarios para la buena marcha del curso.

- Realizar el control de asistencia de alumnos/as, y entregarlo al técnico/a responsable.
- Encargarse de distribuir entre los alumnos/as y recoger los cuestionarios de valoración que le pase el/la técnico/a responsable.
- Prestar asesoramiento en cuanto a recursos y medios disponibles que permitan profundizar en el conocimiento de la disciplina tratada.
- Si el curso comportara alguna actividad complementaria, responsabilizarse de dicha actividad desde su inicio hasta su finalización.
- Si fuese necesario algún material específico para impartir alguna sesión, realizar la compra correspondiente.
- Seguir en todo momento las indicaciones de la organización.
- En el caso de no poder impartir alguna sesión, sustitución por otro profesor/a y, si ello no fuera posible, recuperación en días y horas a acordar con el grupo y el/la técnico/a responsable.

Cuando se contrate un curso determinado, deberá ser coordinado e impartido por las personas propuestas. Si surgiese algún impedimento en este sentido desde que se acuerda el curso hasta que comienza, o durante su desarrollo, deberá ponerse inmediatamente en conocimiento de la Unidad de Actividades Culturales en Zonas.

RECURSOS MATERIALES

Los Cursos Culturales se impartirán en los centros cívicos. Cada curso se asignará a un centro en una sala y fechas concretas.

Según las necesidades de cada sesión, y siempre que se haya establecido con antelación suficiente, se podrá disponer del siguiente material: pizarra, vídeo, ordenador portátil y cañón de proyección. Para otros medios audiovisuales, dependerá del equipamiento de cada centro y de las posibilidades de conseguirlo. En cualquier caso, los recursos materiales se facilitan sin personal para su instalación o manejo.

PRESUPUESTO

El establecido en la Base Sexta.

CONTENIDO DE LOS PROYECTOS

En los proyectos deberán constar estos puntos:



- Proposatzen den ikastaroaren izenburua.
- Ikastaroaren edukia.
- Edukiaren garapena: saio bakoitzaren izenburua eta azalpen laburra.
- Proposatzen den saio-kopurua.
- Ikastaroa zein hizkuntzatan izango den.
- Metodologia.
- Behar teknikoak.
- Proposatzen diren ekintza osagarriak, halakorik egin nahi bada.
- Entitatearen ibilbidea.
- Irakasle eta koordinatzaile arduradun aritzeko proposatzen diren pertsonen curriculuma.
- Ordutegi edo data eragozpenak, halakorik bada.
- Aurrekontua, seigarren oinarrian zehaztutakoaren arabera. BEZ fakturatu behar den ala ez zehaztuko da bertan.
- BEZ salbuespenaren kasuan, horri buruzko idazkia, salbuespena aitortzen duen arauaren berri zehatza ematen duena, edo, bestela, administrazio eskudunak luzatutako ziurtagiria, non zerga-salbuespen hori aitortzen den. Zonetako Kultura Jardueren Atalak proiektu bat kontratatzeke erabakia hartu eta entitateari jakinarazten dionean aurkeztu ahalko da idazki hori, proiektuan bertan gehitu ez bada.

Curriculum bakoitzean tituluen zerrenda, esperientzia eta interesgarritzat jotzen diren gainerako datuak zehaztuko dira. Ez da horiek ziurtatzeko agiriaren fotokopiarik gehitu beharko, horiek bakarrik kontratua sinatzen bada aurkeztu beharko baitira.

PROIEKTUAK HAUTATZEA

Kontuan hartuta aurkeztutako proposamenen kalitate teknikoa eta Kultur Ikastaroen programarekiko egokitasuna, proiektu batzuk hautatu eta kontratatuko dira poltsa osatzen dutenen artean, betiere programazioaren beharren eta interesen arabera.

Dena dela, deialdira aurkeztu ez diren proiektuak baliatu ahal izango ditu Kultur Jardueren Atalak, baldin eta poltsako proiektuetan lantzen ez diren edukietarako badira edo poltsan daudenak horiek emateaz arduratu ezin badira.

- Título del curso que se propone.
- Contenido del curso.
- Desarrollo del contenido, con título y pequeña explicación para cada una de las sesiones.
- Número de sesiones propuestas.
- Idioma(s) en que se imparte.
- Metodología.
- Necesidades técnicas.
- Actividades complementarias que se plantean, si las hubiere.
- Currículum de la entidad licitadora.
- Currículum de la(s) persona(s) propuesta(s) como coordinadora-responsable y profesor(es/as).
- Limitaciones de horario, días o fechas, si las hubiere.
- Presupuesto conforme a lo establecido en la Base Sexta con indicación expresa de si están o no exentos de IVA.
- En caso de exención de IVA, justificación escrita con indicación expresa del precepto normativo por el que procede tal exención o certificado expedido por la administración competente. La inclusión de este punto en el proyecto puede aplazarse hasta que la Unidad de Actividades Culturales en Zonas confirme a la entidad su intención de contratar el proyecto.

Respecto a los currículums, se presentará una relación de títulos, experiencia y cualquier otro dato que se considere relevante, pero no fotocopias con la documentación acreditativa correspondiente. Esta documentación se presentará solo en el caso de que se contrate el proyecto.

SELECCIÓN DE LOS PROYECTOS

Teniendo en cuenta la adecuación de las propuestas al programa de Cursos Culturales y la calidad técnica de los proyectos presentados, una vez constituida la bolsa se procederá a la selección de determinados proyectos y la contratación de sus integrantes, todo ello en función de las necesidades e intereses de la programación.

La Unidad de Actividades Culturales podrá recurrir a proyectos que no se hayan presentado a la convocatoria, siempre que correspondan a contenidos no presentes en la bolsa o cuya impartición no se pueda asumir a partir de la bolsa.